

1965 TORIBIO ALZAGA TEATRO-SARIA

Bizkaiko Ahorro Kaxak zortzi milla pezetako sari bat sortua du Euskaltzaindiari lagunduz. Sariaren oiñarriak auek dira:

- a) Edozein euskalkitan idatzi ditezke teatro-lanak.
- b) Gaia nai dan bezelakoa izan ditek, eta lanak norberak egiña izan bear du eta ez beste izkuntza batetik itzulia.
- d) Gutxienez ordu bete irauin bear izango du eta ekitaldi bi izan. Izkribuak makiñaz idatzita bialdu bear dira, alde bakar batetik eta lerro-une bat utzirik, folio tamañuzko orrian (31,50 x 22 gutxi gora bera).
- e) Sari bakar bat baizik ezta izango, zortzi milla pezetakoa eta zatitu eziña.
- f) Saria, gabe gelditu ditek egoki iruditzen bazaie batzarrekoei.
- g) Batzarrea Bizkaiko Ahorro Kaxak izendatuko du Euskaltzaindiaren eskabidez lanak bialtzeko epea bukatu ondoan. Batzarrean Bizkaiko Ahorro Kaxaren ordezkari batek parte artuko du.
- h) Lanak Euskaltzaindira bialdu bear dira (Ribera, 6, Bilbao) 1965-gko. uztailaren 20-a baiño leen. Lema batekin firmatu bear dira, eta lemaren giltza sobre itxi batean bialdu bear da.

1965 LIZARDI POESIA-SARIAREN OIÑARRIAK

Gipuzkoako Ahorro Kaxa Probintzialak amar milla pesetako sari bat sortu du urtero emateko Euskaltzaindiaren adurapean Lizardi poesia-saria olerkarien klasean ari diranentzat, eta Xenpelar sariak bertsolarien klasekoentzat ornituko ditu.

Lizardi sariaren oiñarriak dira:

1. Bost milla pezetako sari bat emango da ezin zatitu izango dana.
2. Bialtzen diran poesia-lanak nai dan bezelako luzeera eta gaia izan dezakete eta bertsoan euskeraz egiñak izan bear dute.
3. Juzgua emango duen juradua Gipuzkoako Ahorro Kaxa Probintzialak izendatuko du Euskaltzaindiaren eskabidez lanak bialtzeko epea bukatzen danean.
4. Lanak Euskaltzaindira bialdu bear dira (Ribera, 6, Bilbao) 1965 azaroaren 20-a baiño leen. Lema batekin firmatu bear dira eta lemaren giltza sobre itxi batean bialdu.

1965 XENPELAR POESIA SARIAK BERTSOLARIEN KLASLEAN ARI DIRANENTZAT

Gipuzkoako Ahorro Kaxa Probintzialak amar milla pezetako sari bat sortu du urtero emateko Euskal Akademiaren ardurapean. Lizardi poesia saria oler-